

"DIVES IN MISERICORD!*"

Gabonetan ez dausku erregalu makala egin Aita Santuak. Bere bigarren enziklika nagusia, «Dives in misericordia», deritxona, izan dogu gabonkaririk ederrena. Ifiondik be ez gendun uste orrenbesteko «sorpresarik». Bere lenengo enziklika, «Redemptor hominis», ain onartua izan bada, ez dau arrera motelagoa izango bigarrenak be.

Ezin leike ukatu, Karol Wojtylak sortaldeko kutsuz begiratzten dautsoz gaurko problemei. Ikuspegi orretatik begiratzeak aberastasun andia dakar. Aide batetik, Aita Santua sortaldekoa danez, Elizarentzat izugarrizko aberastasuna dakar, ixte aspal-diotan beste guztiek (geienak bata bano bestea bikainagoak) mendebalekoak ziranez.

Jainko erruMorra

Juan Pablok gizonari begira egin euskun bere lenengo enziklika. Oraingoan, Jainkoari begira daukagu. Ain zuzen be, ez ditu gizona ta Jainkoa banatzen. Berantzat ez dago benetako gizonik Jainko barik, ezta benetako Jainkorik gizon barik be. Gizonari begiratzean, Jainkoagana jotzen dau, ta Jainkoari

begiratzean gizonarengana. Jesukristongan bat eginik (nastau barik) agiri diralako gizona ta Jainkoa.

Jainkoagan, bereala, bere errukia ta bere maitasuna ikusten ditu agirian. Ez da atzo goizeko egia, noski. Bai Bibliaren mui-nean bai Elizaren barnean dagon experientzi sakon bat dogu. Jesukristoren bizitza, lekuko. Errukia dariola daukagu nun-nai, batez be ez dauka neurririk bere errukiak eriotz ta biztueran.

Bafia gaurko giroan ez da erreza erruki orretan sinistea, batera norberaren pekatuan sinistea eskatzen dabelako. Bakotxak bere pekatuak sinistu ezik, ezin Jainkoa errukiortzat euki Pariseuen pekatua orixe Izan zan ta orixe da gaur be oztopo andiena Jesuseganako bidean. Naiz ta bakotxa bere zoruan bizi, gizona goitik beera, pekatuz josita dagonez, ezin Jainkoa gureganatu errukior izan ezik.

Gizarte errukitsuagoa

Jainko errukitsuaren aurreaii, gizona bera be erruki eragille biurtzen da. «Zorionekoak errukiorrak —difio Jesusek— errukia jadetsiko dabe-ta». Olan irixten da bere goimaillako nortasunera. Errukior izanez, aberastu egiten da bere gizontasunean. .

Erraietan daroa erruki-nortasunak bata-besteaganako aberastasuna. Bai erruki eragillea bai erruki artzaillea, biok aberasten dira, mailla baten aurkitzen diralako, au da: gizonaren duintasunean.

Jutziziak bakarrik ezin leike gizona bere duintasunera biurtu. Bearrezkoa da parkamena. Gizartean ez badago parkamenik, jutziziaren bidez, ez dau gizonak bereganatuko galdutako nortasuna.

Pekatarien eskubidea, bere duintasunera biurtzea da. Sarritan, jutziz ezin leike nortasun ori bereganatu. Ori gaitik, parkatzaillea ta parkeske datorrena, gizonaren duintasunean alkartzen dira. Duintasun ori, balio ederrena danez, ezetan be ezin leike bertan bera itxi. Or ikusten da parkamenaren premifia.

Gizartearen obekuntzarako, ez da naiko jutziziaren bidea.

Bearrezkuak ditu gizarte onek errukizko begi samurrak. Jutziz ez dira kentzen gizonen biotzetik gogorkeri ta alkar ikusi ezinak. Aspaldion jutzizia zirti-zarta dogula, txakur-katutan gabiltzala, dirudi. Alkar mutur-joka ori gainduteko, dator errukiaren ta parkamenaren bide barria.

Enziklika onetan ez da txikitzen jutziziaren betebearra, bakkarik ez dala naiko gizarte barri bat sortzeko. Esperientziz dakigunez, «gaurko iraultzaille, biarko zapaltzaille» «Azeri zaarrari, ulia joan, bana antza ez», esaten danez. Antz ori kentzera dator «Dives in misericordia». Bestela «Sumraun ius, summa iniuria».

Non errukitsu?

Ez dago jutzizirik erruki barik. Egiak esateko orduan, ez dabil Juan Pablo II zearka-mearka. Ez jakoz atsegin lanoetako dantzak. Oiiiak tinko ditu lurtean. Ta ondo bafio obeto daki, non bear dan geien errukiaren indarra: senar-emazte, guraso ta seme ta lagun artean, lenen. Baita eziketa ta pastoralgintzan be. Ez dago zer esanik, errukiaren premiia geien pastoralgintzan sentitzen dala.

Enziklika oneri jarraituz, gaurko gure Elizbarrutiko ainbat jokabidek badauke aldatu bearra. Urteotan amaika baldintza ipifii doguz, elizako sakramentuak artzeko be. Baldintza oneik, sarritan, jutzizi utsezkoak ditugu. Ta bide orretatik zenbat jente garraztu ete dira?

Bete daiguzan ugariago gure Elizbarrutiko lege barriak Dives in misericordia'ren giroz. Bere elburu guztia, errukiaren ta parkamenaren iraultza gizartearen barnean sartzea izan da.

Bide barri au onartzea, ez da katuak daroan sardiniari ortzea. Bide ortatik dabizanak ez ditugu gizajo tentel batzuk. Zoritxarrez, gizarteak sakontasunez ez dau ezagutu errukiaren indarra ta kemena. Ia beti gogorkerizko bidetik ibilli garanez, ezin geinke asmau be parkamenaren ta errukiaren iraultza, amesetan izan ezik.

A. Olea

51